

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Gure produktua saltzeko, lehenik eta behin, online denda bat irekiko dugu. Hortaz aparte, gure denda fisiko propioa ere izango dugu. Bietan eskuragarri egongo dira gure produktu guztiak, eta hemendik erosi ahalko dira, bi dendetan egongo direlako salgai.

Webgune bat ere edukiko dugu, eta hortik gure bezeroekin eta gure produktuaz interesa duen edozeinekin harremanetan jartzeko aukera izango da.

Bertatik gure produktua “kontrolatu” ahal izango dugu, bezeroei gure produktuaren inguruko galdera eginez, gustatu zaien ala ez, eta noski, gure produktua hobetuz pixkanaka-pixkanaka.

Gure webgunean ere jendeak gure produktua baloratu ahal izango du, beraien iritziak jarri...

Entregak, garraio enpresen bitartez egingo ditugu. Beraiekin harremanetan jarriko gara eta erosleei entrega noiz izango den eta produktuaren bidaiaren berri emango diegu.

Horretarako, aplikazio bat egingo dugu, mugikorretan eta ordenagailuetan deskargtu daitekeena. Horrela, entrega atzeratzen bada, bezeroak aplikazioan sartu besterik ez du egin behar jakiteko gutxi gora behera entrega noiz iritsiko zaion. Banaketak, bakoitzak nahi duen tokira eraman dezakegu, hau da, etxera eraman ahal dezakegu edota lanera, pertsona bakoitzaren arabera.